

## 2. UNITATE DIDAKTIKOA ATSEDENALDIA GIZARTE ESPARRU BEZALA ATSEDENALDI INKLUSIBO BATERAKO IDEIAK. GIZARTE ESPARRUA NIREGATIK ETA NIRE LAGUN GUZTIENGATIK.

**Kategoria: DBH, BATXILERGOA ETA LH**

### **AURKIBIDEA**

1. AMAIERA PRODUKTUA
2. HELBURU OROKORRAK, KONPETENTZIA GILTZAK ETA GARATU BEHARREKO ARLO KURRIKULARRAK.
3. PROPOSAMEN METODOLOGIKOA. ZERBITZUAREN IKASKETA.
  - 3.1. PRESTAKETA.
  - 3.2. GAUZATZEA.
  - 3.3. EBALUAKETA.
4. ZERBITZUAREN IKASKETARAKO PROPOSAMENEN ADIBIDEAK.

Material didaktiko hau eta proposatutako dinamikak ez dira derrigorrezkoak; besterik gabe, irakasle partaideentzat laguntza osagarria izatera datoz, partaidetzaren jarduerari ekin aurretik edizio honen gaiak hobeto ulertzeko.

### **1. AMAIERA PRODUKTUA:**

Musika bideoklip bat (gehienez minutu bateko iraupena) zeinetan atsedenaldi inklusiboago bat erreibindikatu den. Proposatzen dizuegun musika oinarrietako bat hautatu behar da eta musika jarri, edo bestela zuen musika propioa konposatu ahal duzue edo eskubidetatik libre dagoen beste edozein melodia hautatu.

Izenburua eta abestiaren letra eta bideoan gertatzen denaren gidoia azaltzea eskatzen da, eskuragarriagoa izateko.

Informazio gehiago: [www.concursoescolaronce.es](http://www.concursoescolaronce.es)

1. Unitate Didaktikoan esaten genuen bezala, atsedenaldia gizarte ikuspegi batetik eta ikuspegi fisiko edo espazial batetik ulertu ahal dugu.

Unitate Didaktiko honetan, **atsedenaldiaren gizarte dimentsioan sakontzez gainera**, ikasleria guztiaren inklusioa lortzeko modua aztertuko dugu. Horretarako, proposamen **metodologiko eta berritzaile bat aurkituko duzu**, kurrikuluan eta konpetentzia giltzetan oinarritzen dena, elkarrizketa berdintzailearen bidez ikasleria ahalduntzen, eta **hiritartasun bidezko baten garapenerako alderdi etikoak eta emozionalak** alboratzen ez dituen ikuspegi holistiko baten bidez hezkuntza ulertzen lagunduko dizuna.

Etapu hauetan atsedenaldiaren arloa lantzeak berezitasun eta zailtasun ugari ekar ditzakeen arren (batez ere LH eta Batxilergoa mailatan), gure ustean komenigarria da **adin gehiagoko ikasleriak ere jardunaldiaren une horretako bazterte egoeren inguruan hausnartzea**, hain zuzen une horietako lagunartea eta gizarte harremanak hain garrantzitsuak gertatuko direnez. Bestalde, erronka izan daiteke lortzea etapa hauetako ikasleria gizarte inklusiboago bat eta mundu humanistago baten garapena lortzeko ekarpena egitea, bere konpromisoaren bidez, ikasleria gazteagoaren aisialdia dinamizatuz, komunitateari zerbitzu bat emanez ikaskuntza bermatzen duen **ZERBITZUAREN IKASKETAREKIN** sortutako proposamenak direla medio.

Unitate honen helburua da atsedentaldia ikasleria guztiarentzako eremu seguru eta integratzaile bat bihurtzea, guztiok parte hartu ahal izateko eremu bat, horretarako eskainiko diren proposamen ezberdinen bidez.

Ikasleria honengana zuzendutako beste 3. Unitate Didaktikoarekin gertatzen den bezala, badakigu erronka handia dela, zeren atsedenaldira patioko dinamiketan parte hartzen ez duen, baina horretarako atsedentarekin kontaktatzen duen eta espazio hori erabili ohi duen edo ez duen ikasleriaren kolaborazioa bilatzen da. Proposamen honekin ikasleriarengan zeharkako kompetentziak, bizitzarako trebetasunak, balio eta jarrera psikosozialak garatzea bilatzen da, aurretiaz hautemandako behar bat abiapuntutzat hartuta.

## **2. HELBURU OROKORRAK, KONPETENTZIA GILTZAK ETA GARATU BEHARREKO ARLO KURRIKULARRAK.**

Jarraian, proposamen metodologiko honekin landuko diren **helburu orokorrak, kompetentzia giltzak eta arlo kurrikularrak** azaltzen dira. Unitate didaktiko honen helburu nagusia metodologia ezagutzea da; bestalde eta adibide modura, proposamen batzuk eskaintzen dira; zuen ikastetxetan sortu ahal diren beste askotarako baliagarriak izango direlakoan gaude eta **gure nahia izango litzateke zuek lehiaketaren sare sozialen bidez gurekin partekatzea.**

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<p>Bere betebeharrak arduraz betetzea eta besteekiko errespetuan bere eskubideak ezagutzea eta betetzea, tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzeko pertsonen eta taldeen artean, elkarriketa praktikatzeko giza eskubideak, gizonen eta emakumezkoen artean tratua eta aukeren berdintasuna, gizarte plural baterako balio komunak bultzatuz eta hiritartasun demokratikoaren betearazpenerako prestatuz. (1) (2)</p> <p>Sexuen ezberdintasuna eta horien arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna baloratzea eta errespetatzea. Sexua edo bestelako baldintza edo zirkunstantzia pertsonala edo sozialaren ondoriozko pertsonen diskriminazioa errefusatzea. Gizonen eta emakumezkoen artean</p>
--------------------------	---

	<p>diskriminazioa hala nola emakumearen aurkako indarkeriaren edonolako egoera dakarten estereotipoak errefusatzeari. (1) (2)</p> <p>Bere afektuzko gaitasunak nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan indartzea, eta indarkeria, edonolako aurreiritziak, jarrera sexistak errefusatzeari eta gatazkak modu baketsuan ebaztea. (1) (2)</p> <p>Informazio iturrien erabileran oinarritzko trebetasunak garatzea, zentzu kritikoarekin, ezagutza berriak eskuratzeko. Teknologien arloan oinarritzko prestakuntza bat jasotzea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren arloetan. (1) (2)</p> <p>Izpiritu ekintzailea eta norbere buruarekiko konfiantza, partaidetza, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak eta ardurak hartzeko gaitasuna garatzea. (1) (2)</p> <p>Gaztelera eta hala badagokio, Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofiziala idatziz eta ahoz zuzentasunez ulertzea eta adieraztea, testu eta mezu osoak eta literaturaren ezagutzan, irakurketan eta ikasketan hastapenak egitea. (1) (2)</p> <p>Atzerriko hizkuntza bat edo gehiago modu egokian ulertzeko eta adierazteko gai izatea. (1) (2)</p> <p>Kultura eta historia propioaren eta besteenaren oinarritzko alderdiak ezagutzea, baloratzea eta errespetatzea, baita ondare artistiko eta kulturala ere. (1)</p> <p>Norbere gorputzaren funtzionamendua ezagutzea eta onartzea, berezitasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza eta osasun ohiturak finkatzea eta heziketa fisikoaren eta kirolaren praktika ezartzea, garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko. Sexualitatearen giza dimentsioa bere dibertsitate guztiarekin ezagutzea eta baloratzea. Modu kritikoan baloratzea osasunarekin, kontsumoarekin, bizidunen zaintzarekin eta ingurumenarekin lotutako gizarte ohiturak, horiek kontserbatzeko eta hobetzeko ekarpena eginez. (1) (2)</p> <p>Sormen artistikoa estimatzea eta adierazpen artistiko ezberdinen hizkuntza ulertzea, adierazpen eta irudikapen baliabide ezberdinen erabilera eginez. (1) (2)</p>
--	---

<p><b>KONPETENTZIAK<sup>1</sup></b></p>	<p>Komunikazio linguistikoa (1) (2)</p> <p>Konpetentzia matematikoa eta zientzia eta teknologia arloetako oinarrizko konpetentziak (2)</p> <p>Konpetentzia digitala (1) (2)</p> <p>Ikasten ikastea (1) (2)</p> <p>Gizarte eta gizabidezko konpetentziak (1) (2)</p> <p>Ekimenaren zentzua eta izpiritu ekintzailea (1) (2)</p> <p>Kultura kontzientzia eta adierazpenak (1)</p>
<p><b>ARLO KURRIKULARRAK</b></p>	<p>Gaztelera eta literatura (1) (2)</p> <p>Matematikak (2)</p> <p>Geografia eta historia (1)</p> <p>Teknologia (1) (2)</p> <p>Musika (1) (2)</p> <p>Atzerriko hizkuntza (1) (2)</p> <p>Heziketa Fisikoa (1) (2)</p> <p>Balio etikoak (1) (2)</p> <p>Ekintzaitza eta enpresa Jarduerarako Hastapenak (1) (2)</p> <p>Plastika, ikusmen eta ikus-entzunezko heziketa (1) (2)</p>

### **3. PROPOSAMEN METODOLOGIKOA. ZERBITZUAREN IKASKETA.**

1. Unitate Didaktikoaren teoria esparruan, pertsona guztien kalitatea hobetzeko beharra hala nola gizarte justizia, giza eskubideak eta jasangarritasuna bezalako balioak jorratzeko ikaskuntza informalen garrantzia azpimarratzen zen.

Helburu horiek lortzeko proposatzen den proposamen metodologikoa **Zerbitzuaren Ikasketa** da, *alegia ikaskuntza eta gizarte konpromisoa uztartuz ahalduntzea, errespetua eta hiritartasun arduratsua sustatzen dituen metodologia bat.*

---

<sup>1</sup> Parentesi artean barne hartzen da ApS proposamenari dagokion zenbakia

Roser Batlle metodologia honetako pedagogo aditua da, gaiari buruzko erabateko erreferente nazionala. Ezin hobeto azpimarratzen du bere garrantzia, beraz, jarraitu aurretik, [bideo labor honetan](#) entzutera gonbidatzen zaituztegu

ESTEKA: <https://youtu.be/6NxUcO7A9c8>

**GOGOAN IZAN!** Atsedendiko patioaren gure eraldaketa prozesuan, gizarte arloaren ikuspegitik, eremu hau jadanik jolas moduan erabiltzen ez duten zuen ikasleriarekin, gazteekin lantzeko proposamena da **horiek ikastetxe bereko edo are beste bateko gazteenentzat proiektu solidarioak sustatzea, atsedendiki inklusiboak lortzeko helburuarekin zeinetan haur guztiak onartuak sentituko diren.**

Beraz, hori garatuko duten gazteenentzat eta nerabeentzat oso erabilgarria den gizarte **boluntarioritzako proposamen bat** izango litzateke, baina so erabilgarria halaber dagokion ikasleria gazteenarentzat, eta nola ez, oro har heziketa komunitate guztiarentzat, zeren pertsona guztien bizi kalitatea hobetzen du, pertenez sentimendua sendotzen du eta ahalduz sustatzen du hezkuntzaren eta hezkuntzatik eginiko jarduera eraldatzailea azpimarratuz.

Zerbitzuaren Ikasketa honetan, ikasleriak **hobetzeko egoera bat identifikatzen du**, eta hortik aurrera proiektu solidario bat garatzen du. Behar hori identifikatu ondoren (kasu honetan gizarte izaerakoa) eta harekin sensibilizatzean, hobetu egin behar dute, euren baitatik datozen proposamen zehatzak direla medio, horiek martxan jartzean komunitateari zerbitzu bat emanez eta horrela eduki kurrikularretatik haratago ikaskuntza praktikoa lortuz.

Josep María Puig, Xus Martín eta Roser Batlle autoreek elaboratutako *“Cómo iniciar un proyecto de aprendizaje y servicio solidario”<sup>2</sup>(2008)* Zerbik Gidaliburutik, bere elaboraziorako etapak hautatu dira. Jarraian azaltzen diren etapa eta fase hauek (horien inguruko orientabideak aurkituko dituzue bere aplikazioa errazteko helburuarekin) **hiru une nagusitan** banatzen dira: **prestaketa, gauzatzea eta ebaluaketa.**

### **3.1. PRESTAKETA**

Prozesuaren lehenengo une hau hiru etapetan banatuta dago, dagozkion faseak barne. Prestaketa honen zama irakasleriari dagokio, proposamenak elaboratzeko, lankidetzarako erakundeak bilatzeko, pedagogia eta antolamendu alderdiak definitzeko hala nola taldeak antolatzeko arduraduna izateagatik

#### **1.ETAPA Zirriborroaren elaborazioa.**

Lehenengo etapa honen ideia guk eskaintzen dizuegu eta 35. ONCE lehiaketarako proposamena da: **Atsedendiki inklusibo baterako ideiak. Gizarte esparrua .**

---

<sup>2</sup> Ondorengo estekan deskargatu ahal da: <http://www.zerbikas.es/wp-content/uploads/2015/07/1.pdf>

Faseak:

1. **Nondik hasi definitzea.** Zer egin dezakegu? Bezalako galderak zuen buruari planteatzea, erabilgarria da hasteko.
2. **Taldea eta bere kide bakoitza nola dagoen aztertzea** jarraian taldeak antolatzen diren helburuarekin.
3. **Gizarte arloan beharrezkoa den zerbitzu bat ezartzea** (gure kasu zehatzean “atsedenaldi inklusibo bat”).
4. **Zerbitzuarekin lotutako ikaskuntzak ezartzea.** Hemen kontuan hartzen dira helburu orokorrak, jorratuko diren kompetentziak eta arloak, baina kasu honetan, jadanik Unitate Didaktikoaren hasieran azaldu direnak.

## **2. ETAPA Gizarte erakundeekin harremanak izatea**

Bigarren etapa honetan, planteatutako proposamenarekin, Zerbitzuaren Ikasketa garatu ahal izateko ikastetxe bat bilatu behar da, ikastetxe propioa izan daiteke (patioarekin eta bere atsedendian lagundu ahal izateko beheragoko hezkuntza etapekin kontaktzen badu) edo bestela ekintza bateratuak garatzeko beste ikastetxe batekin parte hartzea.

Faseak:

5. **Lankidetzarako erakundeak identifikatzea**, ikastetxe propioa edo beste auzo batekoa, ingurune herrikoa.
6. **Eskaria planteatzea eta hitzarmen bat adostea** aurrera atera ahal izateko

## **3. ETAPA Planifikazioa**

Lehiaketa antolatzen denetik, aurkeztutako proposamen bietan parte hartzeko helburu orokorrak, kompetentziak eta arloak eredu modura eskaintzen dira, jarraian garatzeko

Faseak:

7. **Alderdi pedagogikoak definitzea**, beharrezkoa izango litzateke garatuko diren jardueren inguruan gogoeta egiteko.
8. **Gestioa eta antolaketa definitzea** beharrezko egutegiarekin, orduarekin, materialekin, etab.
9. **Taldearekin laneko etapak definitzea**, lan-taldeak antolatzea.

### **3.2. GAUZATZEA**

Hau prozesuaren une nagusia da, izan ere, azkenean bere etapetako batean ekintzari ekiten zaio.

## **4. ETAPA Prestaketa**

Etapa hau irakasleek zuzentzen dute eta motibazio intrintsekoaren eta estrintsekoaren unea izatera dator.

Faseak:

10. **Taldea motibatzea**, lagunduko diren ikastetxeko haurren, irakasleen edo familien lekukotasun zuzenak aprobetxatu ahal dira.
11. **Arazoaren diagnosa egitea eta proiektua definitzea**. Gure kasu zehatzean, laguntza eskatu duen ikasleria gazteenak arazoa definitu ahal izango du.
12. Garatuko den **lana antolatzea**, taldeen araberako planifikazioak..
13. **Prestaketaren ikaskuntzen inguruko gogoetak**

## **5. ETAPA betearaztea**

Hau ekintzari ekiteko etapa da.

Faseak:

14. **Zerbitzua garatzea.**
15. **Inguruko pertsonekin eta erakundeekin harremana izatea.**
16. **Erregistratzea, komunikatzea eta barreiatzea** proiektua ikastetxean bertan, saretan, formatu ezberdinen erabilera eginez.
17. **Garatutako ikaskuntzen inguruko gogoeta egitea**, beharrezkoa da horretarako denbora eta espazio bat programatzea, barneratutako, barneratu gabeko ikaskuntzak identifikatu ahal izateko, proiektua auto-ebaluatzeke, zuzentzeko eta berriz egokitzeko, beharrezkoa izango balitz.

## **6. ETAPA. Amaiera**

Faseak:

18. **Garatutako zerbitzuaren EMAITZAK hausnartzea eta ebaluatzea**, esperientzian parte hartu duten hurrek eta ikastetxeko gainerako ikasleek beteko duten asetasun eskalak prestatu ahal dira. Ondorio globalak ateratzea.
19. Hobetzeko helburuarekin **Lortutako IKASKUNTZAK hausnartzea eta ebaluatzea**. Pentsamendu ohiturak erabili ahal dira, Zerbitzuaren Ikasketaren prozesuan zehar eskuratutako ikaskuntzen inguruko gogoeta egiteko: *Zer nekien lehen? Zer dakit orain? Pertsona bezala hobetu al naiz?* Edo interesgarria iruditzen zaigun beste edozein arlo.
20. **Proiektu honekin edo beste batekin etorkizuneko ikuspegiak proiektatzea.**
21. **Bizitako esperientzia ospatzea**. Garatutako lana barreiatzea, komunitateari emaitzak jakinaraztea...

### 3.3. EBALUAKETA

#### 7. ETAPA Foku anitzeko ebaluaketa

Irakasleak memoria sinple bat elaboratuko du, helburua izanik esperientzia nekez ahanzte eta beste irakasle batzuentzat inspirazio modura baliagarria izatea. Ondorengo atalak ebaluatuko dira.

Faseak:

22. **Taldea eta bere kide bakoitza ebaluatzea.**
23. Gizarte erakundeekin **sare-lana ebaluatzea**
24. **Esperientzia ebaluatzea** Zerbitzuaren Ikasketaren proiektu bezala.
25. Pertsona hezitzaile bezala **auto-ebaluatzea.**

#### 4. ZERBITZUAREN IKASKETAREN PROPOSAMENEN ADIBIDEAK

Ikusi eta azaldu dugu behar erreal batetik abiatuta, hemen proposatzen dira, adibide modura, garatzeko proposamen ezberdinak, horiek guztiak bi helburu nagusietan barne hartzen dira, atsedendietako inklusioa eta soziabilitatea (ikusi 1. irudia).



1. Irudia Lehiaketarako elaboratutako infografía. “Niregatik eta nire lagun guziengatik. Atsedendia inklusibo baterako ideiak”

- **Atsedendia gazteenen atsedendiko patioa zuzendutako jokoekin dinamizatzea (1).** Proposamen honetan, jokoak hautatu, fitxak prestatu, erakutsi, etab. egin beharko dira.
- Aukera bat izango litzateke **ohiko eta/edo beste zenbait kulturetako jokoak erakustea**, Heziketa Fisikoaren arloan ikasi direnak edo bestela bide heziketa lantzeko zirkuituak, guztiontzat eskuragarriak diren zirkuituak, etab. sortzea.
- Proiektua barreiatzeko aukera ezberdinak daude: ikastetxean **Jokoaren Museo** bat presta daiteke, bertan ikasturtean zehar ikasitako joko guztiak eta horiek azaltzeko QR kode bat ekarriko dituen, bertan entzun ahal izanik halaber melodia edo **jokoan gida** elaboratu, aurretiaz prestatutako fitxekin, ikasleriaren diseinuekin egindako gida bat edota **YouTube kanal** bat, bertan



museoko joko guztien azalpenak emateko, ikastetxeko materialaren barne hartzeko eta horiek gogoratzeko, *flipped classroom* modura erabili ahal izanik.

- **Atsedenaldirako joko eta kirol inklusiboak ezagutzea eta asmatzea (2).** Proposamena aurrekoaren antzekoa izango litzateke, baina joko edo kirol horien asmatetaren osagai sortailea eransten da, eremuaren neurriak abiapuntutzat hartuta elaboratutako azalpenekin eta matematikak modu kurrikularren lantzeko eskalan eginiko marrazkiekin (adibidez).

Hemen azaltzen diren bi proposamen hauek aukera ugariak eskaintzen dituzte, soilik aukera batzuk garatu dira adibide modura. Irakasleek pentsatutako aukera hauek eta beste batzuk **adimen anitz guztien garapena kontuan hartuta garatu ahal izango lirateke** Hala ere, ez dugu ahaztu behar **helburua beti izango dela ikasleria guztiaren partaidetza sustatzea**, ikastetxean elkarbizitza hobetzeko zaintza, errespetua eta tolerantzia balioak garatzea eta ikasleria guztiarentzako heziketa inklusiboa bermatzea. Hauek izango lirateke irakasleriak 6. etapan (amaiera eta gogoetakoa) baloratu beharko lituzkeen helburuak.